BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

922

AGINDUA, 2022ko otsailaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena, Zeanuriko udalerriko (Bizkaia) «Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia-2» Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe pribatuaren jarduerak bertan behera uzteko baimena emateko dena.

Zeanuriko udalerrian (Bizkaia) dagoen «Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia-2» Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe pribatuaren jarduerak bertan behera uzteko baimena eskatuz, ikastetxe horren erakunde titularraren ordezkariak hasarazitako espedientea ikusi da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek ikusi dira: apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (apirilaren 9ko BOE), apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua (martxoaren 12ko BOE), eta arlo horretan aplikatu beharreko gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ondoren zehazten den ikastetxe pribatuari bere jarduerak bertan behera uzteko baimena ematen zaio:

Kode-zenbakia: 015841 eta 48019419.
Izen generikoa: Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua.
Izen espezifikoa: «Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia-2».
Titularra: Bilboko Elizbarrutia.
Helbidea: Zulaibar auzoa, 17.
Udalerria: Zeanuri.
Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimendutako irakaskuntzak:

– Batxilergoa: «Zientziak» modalitatea. Edukiera: 2 unitate, 70 ikaspostu.

2. artikulua.– Jarduerak eteteko baimenak 2021-2022 ikasturte-amaieratik aurrera izango ditu ondorioak, eta une horretan baja eman beharko zaio Ikastetxeen Erregistroan daukan inskripzioari. Ikastetxeari Bigarren Hezkuntza irakasteko baimena ematen zioten aginduak ondoriorik gabe geratuko dira egun horretatik aurrera.

3. artikulua.– Ikastetxe hori berriro irekitzea eskatzen bada, nahitaezkoa izango da ikastetxeak baimentzeari buruz indarrean dauden xedapenetan jasotako aginduak betetzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 8a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.